



JIMENO ARANGUREN, Roldán

Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Zuzenbide Publikoko saila. Zuzenbidearen Historiako arloa
Arrosadia Campusa, z/g. 31006 Iruña
roldan.jimeno@unavarra.es

BIBLID [1137-1951 (2008), 17; 19-33]

Sarrera eguna: 2008.02.13
Onarpen eguna: 2008.02.25

Nafarroako Foru Zuzenbidearen irudiak: herri aldamikapenetik ahanzturara. Hurbilpen teoriko-metodologikoa

(Images of Navarra Statutory Law: from popular proclamation to the forgotten. Theoretical-methodological approach)

Nafarroako Foru Zuzenbidearen irudiak: herri aldarrikapenetik ahanzturara doktoretza tesian erabilitako irizpide teoriko eta metodologikoak aztertzen dira. Zentzu honetan gai hauen inguruko hausnarketa egingo dut: Nafarroako identitatea, foruen inguruko memoria instituzionala eta herri-memoria, foruen ahanztura, egia historikoa eta historialariaren objektibotasuna eta oinarri metodologikoak.

Giltza-Hitzak: Nafarroa. Foruak. Aro garaikidea. Identitatea. Memoria. Metodologia.

Se analizan los criterios teóricos y metodológicos empleados en la tesis doctoral escrita en euskera *Las imágenes del Derecho Foral Navarro: de la reivindicación popular al olvido*. En este sentido, reflexionaré sobre los siguientes aspectos: identidad de Navarra, memoria institucional y memoria popular en torno a los fueros, olvido de la Foralidad, verdad histórica, y objetividad y bases metodológicas del historiador.

Palabras Clave: Nafarroa. Foruak. Aro garaikidea. Identitatea. Memoria. Metodologia.

an étudie les critères et les méthodologies utilisés dans la thèse doctorale Nafarroako Foru Zuzenbidearen Irudiak : herri aldarrikapenetik ahanzturara (Figures du Droit Foral Navarrais : de la revendication populaire à l'oubli). En ce sens, je fais une réflexion concernant les thèmes suivants : l'identité de la Navarre, mémoire institutionnelle et mémoire populaire concernant les fueros, oubli des fueros, vérité historique, objectivité de l'historien et bases méthodologiques.

Mots Clés: Navarre. Fueros. Epoque contemporaine. Identité. Mémoire. Méthodologie.



1. Sarrera. 2. Nafarroako identitatea. 3. Memoria instituzionala eta herri-memoria. 4. Memoriatik ahanzturara. 5. Egia historikoa eta historialarien objektibotasuna. 6. Oinarri metodologikoak. 7. Bibliografia.

1. Sarrera

1893ko abuztuaren 28an Esteban Pérez Tafalla y Urtasunek argitaratutako *Protesta Foral de Navarra. Libro de Honor de los Navarros* liburu mardularen eskaintzan, 120.000 nafarren sinadurak irakurtzeko gomendioa egitearekin batera, honako esaldiarekin bukatzen zuen: *Zeruko Jaunak kargu har diezazuela Foruak bazter utzi izanagatik.*

Berrogeita hamar urte geroago, 1943an, inork ez zuen Gamazadaren berrogeita hamargarren urteurrena ospatu ere egin. Egoera berria ez zuen memoriarik gabeko gerraosteak sortu. Ahanztura atzetik zetorren, Errepublikatik, Diktaduratik... Talde politikoen artean gorabehera gehiegi izan ziren gero eta itxuragabeagoa zen foralitatearen gainean eta, horrek guztiak, zalantzarik gabe, eragina izan zuen gizabanakoen identitateetan eta, ondorioz, bazterrean utzi zuten militantzia sutsu hura, beren arbasoak karlisten batailoietan erroldatzera bultzatu zituen militantzia hura, alegia. Zenbait urte lehenago, 1935. urtean, Eladio Esparzak berak horixe adierazi zuen bere *Discurso sobre el fuero de Navarra* agirian, nafar espiritua lantzearen alde mintzatu baitzen, bai eta Nafarroa nafarrei ezagutzera eman beharraz ere.

Egungo errealitateara etor gaitezen. Iraganean ez bezala, gaur egun Foruari buruz badugu garrantzizko literatura, zientifikoa eta zehatza, eta askotan kontrajarria. Mintegiak eta mintzaldiak ere egon badira, eta eskoletan eta unibertsitateetan, argi-ilunekin, baina zertxobait irakasten da. Ordea, herri-memoriatik ahanzturara pasa gara. Horren lekuko Nafarroako Unibertsitate Publikoko hainbat ikasleei egindako inkestak dira. XXI. mendeko gazte gehienek foruen aldarrikapenei buruz duten ideia urrun dagoen zerbaitena da, euren arbasoena.

Nolakoa izan da bilakaera hori?, zer dela eta egungo ez-jakinduria?, zer nolako erronkak dituzte eskubide historikoak etorkizunari begira?

Galdera hauek 2006ko urtarrilaren 18an Euskal Herriko Unibertsitateko Balioen Filosofia

eta Hezkuntzen Zientzia Fakultatean defendatutako *Nafarroako Foru Zuzenbidearen irudiak: herri aldarrikapenetik ahanzturara* doktorautza tesian erantzuten saiatu nintzen. Kepa Fernández de Larrinoa Pablos irakasleak zuzendutako tesi hau Gregorio Monreal, Teresa del Valle, Joxerramon Bengoetxea, Josetxu Martínez Montoya eta Fernando Mikelarena kideek osatutako epaimahaiak epaitu zuen. Jatorrizko lana, tribunalak egindako iradokizunekin aberasturikoa, Iruñeko Pamiela argitaletxeak kaleratuko du.

Santiago Leoné Puncelak *Los Fueros de Navarra como lugar de la memoria* izeneko lana argitaratu zuen 2005ean, non, Frantziako historialari Pierre Norak abiarazitako *lieu de mémoire*¹ nozioa oinarri harturik, nafar foralitatearen historia aztertu baitzuen bertako historialarien bitartez eta, hein txikiagoan, baita bertako juristen bitartez ere. Norak dakarren definizioaren arabera, oroimenaren lekuak oroimen kolektibo horren azken aterpeak dira, betiere tradizio gisa bizi izandako iragan hura historialari kritikoaren jabetzara erabat pasatu baino lehen. Oroimenaren lekuak iragana galdekatzeko modu berritzailea dakarten lanabesak dira, baina gauza gehiago ere bai; horrela, oroimenaren lekuak metakontzeptutzat har ditzakegu, eta horrek aukera ematen du iragan nazionalari balio handiagoa emateko. Zergatik? Bada, esanahi berria dakarkietelako harako oroimen kolektibo haren eramaile diren gauza batzuei. Izan ere, oroimenaren leketan ez dago soilik lan kritikoa. Badago, halaber, oraindik loturik gauzkan –soilik sentimenduz bada ere²– iragan baten arrastoak salbatzeko lana.

Leonéren liburuak ezer frogatzen badu izan da foruek edo foralitateak ez dutela beti esanahi berbera izan, gauza aldagarria izan baitira. Lurrera botatzen du beti bere buruarekiko berbera izan den Nafarroaren ikuspegia, hau da, bere sorrera edo jatorrietatik gaur eguneraino osorik eta ukitu gabe iritsi diren ezaugarriez jantzia dagoen ikuspegi hura. Izan ere, Nafarroako egungo foru zuzenbidea –nagusiki Foru Berriko zuzenbide pribatua edo zibilean (1973) eta Foru Hobetzearen zuzenbide publikoan (1982) jaso– foralitateari buruzko kontzeptu aldagarri baten azken emaitza da. Lehenbiziko kasuari dagokionez, egungo foru zuzenbidea garaile atera da Nafarroako zuzenbide zibilaren erromanizazioak ekarri zuen *desforalizazioaren* bitartez eta, bigarrenari bagagozkio, bere azken egituran XX. mendean ernamuindua, bere espainoltasunaren destino historikoak

1. NORA, 1984a eta b.

2. LEONÉ PUNCEL, 2005: 22-28.



markatutako foruen bitartez. Alde horretatik, nagusi den dotrina nabarristak behin eta berriro gogoratzen du askatasun zibilaren printzipioan oinarrituak daudela nafar foralitatea eta bere autonomia juridikoa. Bada, printzipio horren arabera, Nafarroa, erkidego politiko gisa, Estatuaren aurrekoa da. Hau da, bere autonomia ez dator Estatu baten emakidatik, forutik baizik. Autonomia Estatutua Estatuaren emakida politikoa da. Aldiz, forua Estatuaren aurreko eskubidea da, askatasun zibilaren kontzeptuan oinarritua. Beste alde batetik, halaber, oso gogoan hartu beharra dago foru erregimenak edo itunduak Estatu eta foru ideiak harmonizatzen dituela, eta burujabetasun propioa Espainiako guztien ongiaren mendean jartzen duela.

Artikulu honetan *Nafarroako Foru Zuzenbidearen irudiak: herri aldarrikapenetik ahanzturara* doktoretza tesian egindako ikerketaren berri emango dut bere metodologiari so eginez. Tesia –sarrera eta ondorioak alde batera utzita–, lau zati ezberdinez osaturik dago: Lehena, foruen krisiari eskaintzen diot, XIX. mendeko foralitateari, alegia. XX. mendean izan zuen bilakaera bigarren zatian jorratzen da, eta hirugarrenean, egungo eztabaida politikoan azaltzen diren diskurtsoak azaldu ditut. XXI. mendearen hasierako foruen inguruko ikuspegi herrikoia laugarren zatian aztertu dut.

2. Nafarroako identitatea

Historia erabili da halako foralitate jakin bat marrazteko, eta erabilera horren gakoa izan da nafar identitate zehatz baten bilaketa. Cucho-dioen bezala, era kontzientean partaide izatearen arau batean oinarritzen da identitatea, oposizio sinbolikoen gainean oinarritua. Kultur identitatea agertzen da *gu-haiek* bereizketa kategorizatzeo modalitate bat bezala, betiere kultur desberdintasunean oinarritua³. Lotura estua dago kulturaren eta identitatearen artean. Horregatik, kultura parekatzen bada kontu *natural* batekin, identitatea ulertzera iristen ahal gara emandakotzat dagoen zerbait bezala, ia ezin ezabatuzko eran markatua gelditzen dena. Horrela, kultur identitatea nahitaez gizabanakoa partaide izatearen jatorrizko talde batera itzultzen da. Hortik heldu da sustraiak eta kultur identitatearen egiazkotasuna bilatzearen garrantzia, gizabanakoaren funtsa bezala ageri dena. Identitateak kultur ezaugarrien zerrenda bat ezarri nahi du, ezaugarri horiek identitate kolektiboaren oinarria baitira, taldearen funtsa,

alegia. Horiek kontzepzio *objektibistak* dira. Horien arabera, objektibotzat jotzen diren irizpide erabakigarrien kopuru zehatz bat behar da, identitatea definituko bada: jatorri komuna, hizkuntza, erlijioa, psikologia kolektiboa⁴... eta, guri dagokigunez, foruak.

Hori guztia gogor kritikatzeko dute identitatearen kontzepzio *subjektibistaren* aldekoek. Azken horien esanetan, kultur identitatea ez daiteke ezaugarri horietara mugatu eta, gainera, ez da kontu estatikoa. Subjektibistentzat identitate etnokulturala (gutxi gorabehera) irudimenezko kolektibitate batean partaide izatearen sentimendu bat edo identifikazio bat da, betiere gizabanakoek gizartearen errealitateaz eta bere zatiketez egiten dituzten irudikapenen arabera... ikuspegi subjektibista honetatik, zalantzarik gabe, foruak ere sartzen ahal ditugu. Azken batean foruek, arestian esan dugun bezala, ez dute beti esanahi berbera izan, bereziki aro garaikidean, non, frogaturik dagoen bezala, *tradizioaren asmaketa* bat gertatu baita. Komeni da gogoratzea *tradizioa* oso kontzeptu zabala dela. Antropologian sakonki deskribatu egin da *tradizioaren* kontzeptua. Horrela, K. Fernández de Larrinoak ohartarazi du hitz hori kontu handiz erabili behar dela. Izan ere, nolana ere, aipamena egin diezaioke ez iragan bizi bati –orain dinamiko eta tenkatua duen iraganari–, baizik eta orainean sortutako irudi batzuei⁵, eta hori arretaz aztertu dute hainbatek: R. Williams (1980), E. Hobsbawm eta T. Ranger (1983), eta W. Roseberry-k (1989). Bayart-ekin bat, esan dezakegu halako *ilusio identitario* bat sortzen dela tradizioa asmatzeko prozesuetatik abiatuta, eta prozesu horiek dira identitateak oinarritzat duen *egiazkotasuna* definitzen dutenak. Egile horren arabera, suposizio bat da pentsatzea *kultur identitate* usteko bati *identitate politiko* bat dagokiola, errealitatean dena ilusorioa baita: eraikuntza bat dira, maiz egin berriak, ez identitate *natural* bat⁶, gure kasuan, esaterako, Jaime Ignacio del Burgo nahiko lukeen bezala.

Harremanetan sartzen diren taldeen artean egindako eraikuntza bat da identitatea mugei eta fronterei dagokienez. Alde horretatik, identitatea harremanezko agerpidea da, elkarreraginezko agerpidea, alegia. Ildo horretan, identitatearen mugak azkenean kultur identitateen mugak izan dira, bai eta identitate *nazionalen* frontierak ere. Izan ere, gizarte garaikideetan, badago *monoidentifikaziorako* joera, hau da, identifikazio eksklusiborako joera. Dena dela, identitatea

3. SAINSAULIEU, 1985: 322.

4. CUCHE, 1996: 83-86.

5. FERNÁNDEZ DE LARRINO, 1997: 381.

6. BAYART, 1996: 88.



eraikuntza sozial konplexua da, edozein gizarte talderen heterogeneotasuna bera ere islatzen duena. Horrela, Cuche-k dioen bezala, identitatea ez daiteke gauza monolitiko gisa hartu, horrek identitate mistoaren fenomenoak ulertzea eragotziko lukeelako, eta fenomeno horiek maiz ageri dira gizarte orotan⁷.

Foruek XIX. mendeko nafar identitatea eratzeko izan zuten garrantziari erreparatzen badiogu, ezin konta ahala azterlan aurkituko ditugu bai Historiatik, bai Zuzenbidearen Historiatik, bai Soziologiatik, bai Antropologiatik egindakoak. Dena dela, askoz ere lan gutxiagok aztergai izan dute XX. mendeko eta XXI. mende hasierako nafar foru identitatea, gure doktoretza tesiaren benetako azterketa eremua, hain zuzen ere. Gure arreta nafar identitatearen azterketa zehatza xedetzat duten azterlanetan pausatuta, egile hauen lanak nabarmenduko ditugu, ekarpen berrienetatik zaharrenetara: Santiago Leoné (2005), Xabier Zabaltza (2005), Juan M^a Sánchez Prieto eta José Luis Nieva Zardoya (2004), Ana Aliende (2004), Fernando Mikelarena (2003), Amando de Miguel eta Iñaki de Miguel (2002), Ángel García Sanz, Iñaki Iriarte López eta Fernando Mikelarena Peña (2002) –1936an gelditu bada ere–, Miguel Izu Beloso (2001), José Manuel Azcona Pastor eta Joaquín Gortari Unanua (2001), eta Iñaki Iriarte López (2000) –baina liburuaren egitura bitxiagatik, orriz irri ibili beharra dago foralitateari buruzko aipamenak biltzen–. Aitzitik, harritzekoa da zeinen garrantzi txikia eman dioten gaiari ustez kontu hori sakonago aztertu beharko zuten lan batzuek, esaterako, Josetxo Beriáinena (1998) –badirudi bere ustez, foru identitatea 1893ko Gamazadarekin batera bukatu zela⁸–, Ángel Aguirre Baztánena (1998) eta Víctor Manuel Arbeloa Mururena (1998).

3. Memoria instituzionala eta herri-memoria

Badago identitateei berez lotuta dagoen kontu bat eta ikuspuntu kontzeptualetik foruei heltzerakoan ia kontuan hartu ez dena: memoria instituzionalaren eta herri memoriaren arteko desberdintasuna. Bi ikuspegi desberdin dira. Instituzionalak tinko atxikitzen ditu bere neurri eta interesera egindako foruak. Herri ikuspegiak,

aldiz, *ahaztu ditu* foruen esanahia, funtsa eta praktikotasuna; herri ikuspegiak gauza bakarra daki, hots, foruak izan badirela, baina gutxiak dakite foruak zer diren banan-banan esaten eta bere edukia azaltzen.

Komeni da gogoratzea *herri* edo *herrikoi* hitza gizarte maila apalei berez dagokien hitza dela egile batzuentzat⁹. Oroz gain, *herrikoi* litzateke Euskaltzaindiaren hiztegiak dakarren definizioa: *goi mailakoa edo landua ez den herriaren alderdi edo zatiari dagokiona* edo, bestela, *herriari dagokiona, askotan goi mailakoa edo landua ez den herri alderdiari dagokiona*. C. Gallini-k uste du egokia dela esatea herri xeheari dagokiola klase sozialen egoera aztertzeke erabiltzen denean; era berean, egile horrentzat zilegi da hitza kulturaren argitan ikustean, eta lehentasuna ematen dio azterketan kultur mezua ekoiztu, banatu, jaso eta berregitearen dinamikari¹⁰. Gizarte mailen desberdintze horren barnean, egile horrek dio herri xeheak ahozko transmisioa erabiltzen duela, eta elite kultuek, aldiz, bitarteko idatziak¹¹. Erdi Aroa aztertzen dutenak ere bat datoz ikusmolde horrekin eta, ondorioz, *herrikoa eskola-gabearekin* lotzen dute¹². Nire iritziz, nahiz eta argi eta garbi esan daitekeen Erdi Aroko eta Aro Modernoko gizartean gizarte maila apalak eskolagabeak zirela, ez daiteke kategorizatu beste gizarte estamentu batzuei dagokienez. Horrela, P. Bordieu (1983) bezalako soziologoek eta R. Chartier (1992) bezalako historialariek agerian utzi dute ez direla egokiak ikuspegi kultua eta ikuspegi herrikoa (herri ikuspegi) buruz buru erabat elkarren aurka jartzen dituzten ikerlanak.

Herri memoria gero eta gehiago urruntzen joan zen foruetatik, harik eta egungo ahanzturara iritsi arte. Horren aurrean, indarrez azaleratu da foruen *kausa* bakardadean aldarrikatzen duen memoria instituzionalizatu. Bada, 1982ko Foru Hobetetik aurrera, delako memoria instituzional hori nabarrismoaren kausan gelditu zen blindatua edo gotortua, Jaime Ignacio del Burgoren eskutik, frankismoaren bukaera zela eta, berrindartua. Miguel Izu Bellosok¹³ laburbildu du errealitate ofizial berri hori: 1982ko Foru Hobekuntzaren onespenearekin batera, behin betiko bazterrean utzi zen foruak itzultzearen ideia, eta harez geroztik, ia inork ez du halakorik aldarrikatu. Izen ofizialean bi terminoak erabili

7. CUCHE, 1996, 91-92.

8. BERIÁIN, 1998: 84.

9. COURTAS eta ISAMBERT antropologo eta soziologo ezberdinek duten *herrikoi* kontzeptuaren analisisa egin zuten (1983). Kontzeptu berberaren inguruan BURKEk egindako hausnarketa zabala azpimarratu beharra dago (1991: 22-24, 61-112).

10. GALLINI, 1977: 96-103.

11. GALLINI, 1977: 104-108.

12. POULAT, 1977: 48.

13. IZU BELLOSO, 2001: 394-396.

baziren ere –Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Legea– begi bistakoa da ez zela *reintegratio* izan. 1841eko legetik aurrera ezarritako foru erregimena nabarmen berritu eta eguneratu zen, eta Nafarroak nabarmen handitu zuen bere autonomia; baina inola ere ez zen 1839ko egoerara itzuli, eta era berean ez dira *reintegratu* edo berremán Nafarroako erresumak zituen ahalmen eta eskumenak, 1982ko foru mitologia berriaren bultzatzaileek besterik esaten badute ere. Horrela, adibidez, ez ziren Nafarroako Gorte zaharrak berrezarri; Nafarroako Parlamentu bat ezarri zen, baina ez du deus ikusterik Gorte haiekin, batzar errepresentatiboaren izaeran izan ezik, baina ordezkari politikoaren ideia ez da inola ere Antzinako Erregimenarena, baizik eta demokrazia liberal modernoarena. Foru Hobekuntzan Nafarroari esleitu zitzaizkion eskumen gehienak berriak izan ziren. Izan ere, eskumen horiek batasun konstituzionalaren kontzeptutik zetozen, 1982an ulertzen zen bezala, eta ez Nafarroako erresumako erakundeek 1839 baino lehen zituzten haietatik. 1841ean gertatu zen bezala, 1982an aldatu zen kontserbatzen zena baino gehiago. Baina hori guztia egin zen jarraikortasun historikoaren izenean; *tradizioaren asmaketa* orotan bezala, eduki berriak molde zaharretara egokitu ziren eta erakunde berri batzuek erakunde zaharren izena mantendu zuten. Foru-zaletasun berriak elementu berriak erantsi zizkion mito foralaren mamiari: esaterako, 1841eko legearen izaera itundua eta, horrez gain, elementu hauek guztiak ere bai: foru erregimenaren izaera aurrekonstituzionala eta, hori gutxi zelakoan, baita erregimenaren izaera parakonstituzionala ere, konstituzioaren berrikuntzek ez baitute ezertarako ukitzen (konstituzio oro da iragaten. Foruak, ordea, bere horretan du irauten); eta, halaber, 1982ko LORAFNAk bestelako izaera duela Autonomia Estatutuekiko eta, horrekin batera, Nafarroa ez dela Autonomia Erkidegoa, adibidez Euskadi den bezala.

4. Memoriatik ahanzturara

Espainiako Gerra zibilean, Nafarroan galtzaile izan zirenen omenez artikulu bat argitaratu nuen 1999an. Gaiari berrelduko diot, baina oraingo honetan foralitatearen ikuspegitik. Foruei buruzko herri ezagutzak bide luzea egin du

memoria harrotasunez lantzetik, harik eta egungo ahanzturara iritsi arte.

Memoriar mintzatzeak berekin dakar hainbat diziplinak jorratutako alor batean barneratzea. Memoria aztertu dute bereziki Neurobiologia, Psikologia, Pedagogia, Psikopedagogia, Soziologia, Antropologia eta Historia bezalako jakintzek. Josefina Cuestak ederki bildu zuen lan batean memoria eta historiari buruzko egoera, bibliografia zabala eta guzti¹⁴. Hainbestetan aldarrikatu den zientzien diziplinartekotasunak funtsezko eginkizuna betetzen du alor honetan, baina praktikak erakusten du zaila dela haien guztien arteko elkargunea lortzea. Horrela, ez datoz bat Antropologiak eta Historiak memoriari buruz dituzten helburuak. Izan ere, Historiak objektibotasun bat atera nahi du memoriatik. Bitartean, Antropologiak bereziki arreta jartzen du oroitzapenak berekin dakarren kontu batean, kontakizunaren objektibotasuna alde batera utzita. Paul Thompson-ek dio subjektiboa dela giza pertzepziotik datorren ahozko iturri oro, baina aldi berean, soilik ahozko iturriak ematen digu aukera delako subjektibotasun horri erronka bat botatzeko, memoriaren geruzetan sartzeko, memoriaren ilunpeetan aztarrika egiteko, ezkutaturik dagoen egia aurkitzeko itxaropenean¹⁵. Gainera, kontuan hartu behar dugu memoria mugatua eta selektiboa dela¹⁶. Horrela, historialariari arazo bat agertzen zaio: nola interpretatu memoria hori historiari buruz duen fidagarritasunarekiko? Memoria fidagarria al da historiaren aldetik?¹⁷ Marc Augé-k metafora baten bidez azaldu zuen errealitate hau:

Ez dugu dena ahazten, jakina. Baina dena ere ez dugu gogoratzen. Gogoratzea edo ahaztea lorazainaren lana da, hau da, aukeratu eta inauftea. Oroitzapenak landareak bezalakoak dira: hau da, oroitzapen batzuk azkar ezabatu behar dira, besteei garatzen, eraldatzen, loratzen laguntzeko¹⁸.

Gainera, egile horrek berak dioen bezala, apenas dugun pixka bat zahartzeko betarik, eta geure bizipen indibiduala historiaren zati izatera sartzen da. Azelerazio horrek, gain-modernotasunaren emaitza gisa, berekin ekartzen du gertakari izugarrien oparotasun ikaragarria. Horrek behaketa neurritz gora zamaten du, eta, ondorioz, ikertzailearentzako zailagoa da pasa berri den iraganari zentzu bat ematea¹⁹. Aldi

14. CUESTA, 1998.

15. THOMPSON, 1988: 171.

16. CUESTA, 1996: 62-63, 64.

17. VANSINA, 1985: 190-193; THOMPSON, 1988: 263-297; THOMPSON, 1994.

18. AUGÉ, 1998b: 23.

19. AUGÉ, 1998a: 33-37.



berean, gain-modernotasun horren ezaugarriak dira gertakarien superoparotasuna, espazioen superoparotasuna eta aipamenen indibidualizazioa²⁰.

Memoria berreraikitzen da oroitzapenerako edo ahanzturarako atalak aukeratzearen bitartez. Beraz, esan daiteke memoria egon badagoela, ahanztura badagoelako. Faktore ugari eragiten dute ahanztura. Foruaren gaineko memoriari dagokionez, familia da ahanztura saihesteko lanabesik garrantzitsuena. Esan daiteke familiari berez datzekiola historian duen bilakaeraren transmisioa, belaunaldien arteko transmisioa²¹ eta, ikusiko dugun bezala, foruei dagokienez, funtsezkoa izan da ezagutza horien familia barneko transmisioan gertatu den mozketak.

Gaur egun, foruen gaineko memoria legelarien talde gutxi batzuetara murriztua dago eta, hein txikiagoan, politikarien taldeetara. Horrela, foruak herri Zuzenbidearen alor bat izatetik teknifikazio juridikoa izatera pasatu dira. Beraz, ez daude jende gehienaren eskura eta ez da kontu ulergarria. Komeni da gogoratzea arlo juridikoan halako ikuskera sozial bat bezalakoa eratu dela foruen gainean. Hau da, esparru pribatua bezalakoa da eta soilik adituak landu dezake alor hori, besteek ez dute sarbiderik. Hitz teknikoaren abusuak berekin dakar kontu praktikoak baztertzea. Beraz, arazo juridikoetan aterpetzen dira, eta gauza jakina da arazo juridikoak beti moldatzen ahal direla kontzeptu teknikoaren manipulazioaren bidez, teknikasun juridikoak berak sortutako formen arabera²².

Beste alde batetik, foralitatearen oroimenetan, Nafarroako historia osoan izan dira memoria gordetzeko ospakizunak, era askotako ospakizunak, bai herritarrak bai instituzioek antolatutakoak. Bada, era horretako ekitaldiak dira memoriak erabiltzen dituen bideetako bat gertakari bat zilegitzeko²³. Oroitzapenezko ospakizun²⁴ horietan iragana biziberritzen da, eta iragan horrek oraina ordezkatzeko du. Ospakizun horiek, gainera, gure arbasoen memoriari erantzuten diete, bai eta bizitza eredu bihurtu ziren guztien memoriari ere, eta ordena eta zentzua ematen dizkiote denborari²⁵. Azken buruan, era horretako ekitaldiek memoria sozial bat²⁶ finkatzea dute helburu, identitate

kolektibo bat finkatzea, alegia. Izan ere, identitate kolektibo hori ez daiteke soilik bermatu errepresentazioen (irudien) fondo tradizional baten gainean, eta sustraitzen da primarioagoa eta sakonagoa den gauza batean, hots, ekitaldietan parte hartzen dutenek iragan bat partekatzen dutenaren kontzientzia. Horrela, iragan berbera (komuna) izatea identitate kolektibo ororen aurrebaldintza da, eta memoria iragan hori berreraikitzeaz arduratzen da²⁷. Horrexegatik, Jacques Le Goff-ek esaten zuen memoria kolektiboa konkista bat izateaz gain, boterearen lanabes eta xede ere bihurtzen dela²⁸. Ospakizunetan garrantzi nabarmena hartu zuten *monumentuek* (oroitarriek). Iraunkortasunaren adierazpide argia dira edo, gutxienez, iraupenarena. Monumentuek lekuaren funts historikoa aldarrikatzen dute²⁹. Antropologiako kontzeptu honen barnean nabarmentzen dira ahanzturatik pertsonak, gauzak eta ekintzak salbatzera bideratutako ekitaldiak. Adibiderik nabarmenetako bat kaletegia da –gehienetan aukeraketa arbitrarioa da– ondorengoaren memoriarentzat utzitako ondarea³⁰. Gure kasuan, alde batetik foruen monumentu eta kaleak eta bestetik Amaiurko monumentua izan ditugu aztergai.

5. Egia historikoa eta historialariaren objektibotasuna

Errealitate historiko aldagarri baten aurrean gaude, non nagusi den foralitatea inposatzen baita egia historikoa izatearen indarrarekin. Eric Hobsbawm-ek gogora ekartzen du benetako iragana ezagutu nahi ez duten pertsonak ari direla egungo historia berrikusten edo asmatzen inoiz baino gehiago. Soilik beren interesekin bat datorren iragana nahi dute. Gurea mitologia historiko handiaren garaia da³¹. Gogoeta horiek guztiak beste une historiko batzuetara zabaldu litezke, ez nahitaez egungo garaietara.

Víctor Pradera tradizionalista izan zen egungo nafar foralitatearen bertsio ofizialduaren sortzailea, eta politikari horrek berak erabili zuen lehen aldiz euskal foruen ikuspegi espainolista, geroago Jaime Ignacio del Burgok indarrez

20. AUGÉ, 1998a: 46.

21. BERTAUX eta THOMPSON, 1993: 1-12.

22. VES LOSADA, 2002, 157-159.

23. VELASCO, 1994: 137; GILLIS, 1994.

24. Kontzeptu honen inguruan ikus GARCÍA, 1994: 116-199.

25. VELASCO, 1994: 133.

26. CONNERTON, 1989: 71.

27. RAMOS, 1989: 77.

28. LE GOFF, 1991: 181.

29. AUGÉ, 1998a: 65, 73-74.

30. DEL VALLE, 1997: 102.

31. HOBSBAWM, 2003.

berrerabilia eta birsortua, baina soilik nafar foraliterara egokitua. Bi-biak bat datoz esaterakoan haiek beraiek historiaz egindako interpretazioa egia osoa dela, erabatekoa, ñabardurarik gabea. Aldiz, kontrako aukerak *faltsutzaileen* eskutik datoz.

Gezurretan ari ote ziren haiek bezala pentsatzen ez zuten historialariak edo legelariak? Antzeko galderaren aurrean, Adam Schaff filosofo marxista poloniarrek erantzun zuen historialariengan gezurra agertzen dela zientziaz kanpoko helburuen bila ari direnean eta, era berean, historia erabiltzean egungo behar praktikokoak gauzatzeko tresna bezala³² –hain zuzen ere Praderak eta del Burgok bilatzen zutena–. Puntu honetara iritsita, komeni da ondoko honen gainean gogoeta egitea: historialariaren eta historia ikertzen duen legelariaren jarrera, eta haiek dauzkaten sineste ideologikoez beren berreraikuntza historikoan duten eragina. Gaia ez da kontu berria, objektibotasun historikoa XIX. mende hasierako filosofo eta historialari alemaniarren mahai gainean egon zelako.

Errealitate historikoaren ezagutza objektiboak nahitaezko osagai batzuk izan behar ditu oinarrian eta, metodologia egokiak lagundurik, ezagutza-xede hori perfektionatu eta garbituko dute. Badira datu historikoa objektibatze eta beren emaitzen egiaztapen zientifikoa ahalbidetzeko balio duten teknikak eta metodoak. Baina berreraikuntza historikoa historialariaren menpe dago beti. Pentsamenduaren zientzia denez, desberdina da historialariaren gogoia, eta interpretazioa eta kritika dira elementu erabakigarriak. Historialari tradizionalak bere teoria eraikitzen zuen lekukotasunak berari agertu ahala. Aldiz, eskola modernoak aurrez gertakariak aukeratu eta horiek galdekatzen ditu iturria bera objektibotzeko aukera ematen dion eskema historiografiko baten arabera. Horrela, objektiboago egingen du gero berreraikuntza historikoa³³. Alde horretatik, E.H. Carr-ek historialaria *objektiboa* dela esaten duenean, mintzo da gizartean eta historian duen egoerari berari dagokion ikuspegi mugatuaz haratago jotzen dakien historialariak eta, horrez gain, mintzo ere mintzo da bere ikuspegia etorkizunerantz proiektatzen dakien hartaz, halako moduan non historialari hori bera sakonago eta luzaroago sartzan baita iraganean

beste historialari batzuk baino, hots, beren ikuspegia orainean (berehalakotasunean) pausatua duten egoeraren beraren mende daukaten historialariak baino³⁴. Gogoeta horren bidez, Carr-ek giltzarria uzten du agerian, hau da, iturri historikoan interpretazioa eta kritika. Alde horretatik, egungo gertakariak kontatzen saiatzen diren zuzeneko behatzaileek ezin dituzte bere osoan atzeman tartekaturik agertzen diren elementuak, eta ezin dira beren ideietatik askatu, ezta beren sineste edo jarrera partzialetatik ere.

Iduri luke aitortu beharra dagoela zaila dela historiaren ezagutza objektiboa, eta tokia egin behar zaiola nola halako subjektibotasunari historialariak sistema historiko bat eraikitzen duenean. Horrela ulertzen du, esaterako, P. Veyne-k³⁵. Era berean, P. Pagès-en esanetan, historiaren ezagutza objektiboa inola ere ezinezkoa dela esateak, eta, aldiz, subjektibotasuna ezinbestean beharrezkoa dela adierazteak, ez du esan nahi historia lan oro erlatibizatu behar dugunik edota interpretazio mota oro onartu behar denik³⁶. Dotrinak luze eta zabal eztabaidatu du kontu hori. Baina gai horie buruz gehien eztabaidatu duen batek ere (L. Febvre-k) zioen ez dagoela lan zientifikorik alde aurreko teoriarik gabe eta, horrenbestez, are gutxiago lan objektiborik³⁷. Iturriak galdekatzetik lortutako datuek –ahalik eta zientzia laguntzaile gehien galbahetik pasatuta, datu horietan dagoen egia arazteko, eta logikoki ordenatuak– erantzunik asegarriena ematen digute, bai eta berreraikuntza historikorik objektiboena ere.

Berreraikuntza historikoan elementu subjektibo batzuei tokia uzten bazaie ere, aipatu berreraikuntza objektibatu behar da. Lotura zuzena dago historialariak ikerketarako iturri gisa baliagarri zaizkion materialekin duen gaitasun subjektiboaren eta berreraikuntza historikoa egiteraino bete behar dituen arau eta jarraibideen artean. Historialariari zer interesatzen ote zaion galdetuta, P. Veyne-k erantzuten du hori hainbat gauzari lotuta dagoela: dokumentazioaren egoera, bere gustu pertsonalak, burutik pasa zaion ideia, editoreak egin dion enkargua, etab. Aldiz, galdera baldin bada: zertaz interesatu beharko luke historialariak? Erantzuna ezinezkoa da egile horrentzat. Bada, inguruabar horiek aukera ematen diote esateko ezinezkoa dela garrantziaren eskala finkatzea subjektibotasunean erori gabe³⁸.

32. SCHAFF, 1988: 372.

33. CARR, 1985: 9-40.

34. CARR, 1985: 166.

35. VEYNE, 1984: 11.

36. PAGÈS, 1983: 30-31.

37. FEBVRE, 1970.

38. VEYNE, 1984: 31.

Logikoa da pentsatzea bere orainak berak baldintzatua dagoela historialaria iraganeko gertakariak aztertzean, eta kontakizun historikoarekin gehiegi tematzeak ere baldintzatzen duela. Hortxe, bada, agertu behar du historialariaren jarrera kritikoak, bere aurreiritziak ere mendea hartzeko gauza izan dadin. Horrela ulertzen zuten zenbait historialarik, esaterako A. Simon-ek³⁹. Baina beste batzuek, ordea, ez dute inolako arazorik beren militantzia ideologikoa berreraikuntza historikoaren objektibotasunera egokitzeko. Egile horren arabera, iritzi historikoaren askatasunean hezteko, egokiena da orainaren ezagutza bidezkoa eta neurritsua, aurreiritzietatik ahalik eta urrutien dagoen ezagutza, alegia. Baina, era berean, uste du ezagutza hori erabat bateragarria dela halako doktrina erlijioso edo politiko jakin bat izateak dakarren sineste eta uste sendoekin⁴⁰. Zuzenbidearen Historiatik, H. Coing-ek dio nola halako subjektibotasuna onartu beharra dagoela. *Sortzailea* esaten dio berak subjektibotasun horri. Bere iritzi, berreraikuntza historikorako eta juridikorako behar den oinarri empirikoa iturrietan dagoenez, horrexek babesten du Zuzenbidearen Historia subjektibotasun hutsetik. Ideia hori euskarritzeko, berak dio nola edo hala baldintzatua egonen dela Zuzenbidearen historialariak abiaburutzat hartzen duen planteamendua, Historia orokorraren historialariarekin gertatzen den bezala eta esperientziak berak erakusten duen bezala, bere bizipen pertsonalengatik, garaiko korranteengatik eta, era berean, interes praktikoengatik, esate baterako, egun indarrean dagoen Zuzenbidearen kontuak argitzeko⁴¹. Tarteko jarrera defendatzen du H.I. Marrou-k. Egile horrentzat historia soilik da ikerlariak zerbait egiazkotzat sinesteko arrazoigarriztat jotzen duen huraxe. Bere iritzi, historia aldi berean da objektiboa eta subjektiboa, eta subjektibotasuna ez dago azterketa historikoaren kontra, baizik eta huraxe definitzen du⁴².

6. Oinarri metodologikoak

Historia, Zuzenbidea, Antropologia eta Soziologia jakintzen uztarketaren ondoriozko diziplinartekotasuna da doktoretza tesi hau lantzeko erabiliko dugun oinarri metodologikoa. Helburua foralitateari heltzea da, oinarri juridikoa duen gaia. Soilik iushistorikoa den ikuspegia

metodologia soziologikoa eta antropologikoarekin osatu du. Nafarroako kulturaren ezaugarri definitzaile diren foruen garapenean murgildu gara, horiek gordetzeko eta/ala baztertzeko gizarte politiko eta zibilak aukeratutako estrategien bidez.

Beste aldi batean gogoratu genuen bezala⁴³, *Annales* Eskolak historia idazteko modu berria pentsatu zuen, egitandi epiko handietatik urrun. Gizarte antropologiarako lehenbiziko urratsa izan zen. Berehalakoan eragina izan zuen delako **Mentalitateen Historian** edo **Historia Antropologikoan**, eta hori antropologiaren eta historiaren arteko benetako konbergentziatzko alorra da. Antropologiaren ikuspuntutik historia idazteko edo aldi historikoen azterketa antropologikoa egiteko modu berri honek aldatu egin zuen betidanik historialariak izan zuen ikuspegi diakronikoa. Hau da, gertakaria bazter utzi zen hitzak duen zentzu positibistan eta gertakari historikoen errepikapenean hasi zen begirada pausatzen, eta hori soilik antzeman zitekeen *longue durée* delakoaren bitartez. Horrela hainbat gauza gorpuztu ziren, esaterako: egutegi erlijiosoaren festak, pasabideko errituak, elikadura, gorputzak edo generoak. Ethohistoria esaten zaionak bereziki landa mundua (nekazaritza mundua) argitara ateratzen zuen eta, horren barnean, batez ere, herri erlijiosotasunarekin lotutako kontu oro. Era horretako esperientziak garatu dituzten historialarien artean E. Le Roy Ladurie, E.P. Thompson, N. Z. Davis eta P. Burke daude.

Antropologoak, beren aldetik, aitzindariak izan ziren bi diziplinen arteko batasunaren aldeko aldarrikapena egiterakoan, eta gizon hauek nabarmendu ziren: A. Van Gennep, M. Douglas, E.E. Evans-Pritchard, B.S. Cohn, V. Turner edo C. Lévi-Strauss⁴⁴. Egileek eta pentsamendu ildoek arrakasta handiagoa edo txikiagoa izan dute euren planteamenduetan. Ondorioz, modu desberdinean eragin dute beren kide historialariengan. Beharbada, C. Geertz-en lan antropologikoaren inguruko gogoetek izan dituzte oihartzunik handienak egungo historialariengan. Izan ere, bere *The interpretation of cultures* (1973)⁴⁵ lanaren bitartez, saiatzen da erantzuna ematen bi diziplinen arteko konbergentziatzko puntu horri, narrazio teknika berri baten bidez: *deskribapen trinkoa*. Bere teoriak praktikara

39. SIMON, 1963: 875.

40. BAUER, 1967: 29.

41. COING, 1977: 30.

42. MARROU, 1954: 1254-1256.

43. JIMENO ARANGUREN, 2002.

44. Ikus FERNÁNDEZ DE LARRINO, 2005: 55-66.

45. GEERTZ, 1997.

eramaten ditu XIX. mendeko gobernu balinesaren politikaren gaineko ikerketan (Geertz, 1980). Planteamendu horietatik hurbil dago C. Lisón espainiarrak Austriar gortiaz egindako lana (1992). Antropologo espainiar horrek berak beste lan batean gogora ekartzen digu:

Observa y describe la génesis y el caso de etapas pretéritas, especializadas en la creación de modos particulares de acción y en la imaginación de singulares mundos simbólico-mentales con toda su riqueza de plurales dimensiones humanas en momentos cumbres de exhibición⁴⁶.

Dena dela, guztiak ez datoz bat antropologia eta historia azterlanak egiteko moduaren gaineko ikuspegiari dagokionez. Planteamendu horiek ikus daitezke beste askoren artean C. Lévi-Strauss (1964), E.E. Evans-Pritchard (1974), B. S. Cohn (1981) eta P. Burke (1987, 1998) egileen lanetan, eta, zuzenbideari lotuta, Bartolomé Claveroren (1985) hausnarketetan.

Baina foralitateari buruzko historiak mintzatzen ari gara eta, beraz, **Zuzenbidearen Historiari** berez lotuta dagoen azterketa-xede batez. Ikuspegi multidiziplinar horretatik, zuzenbidea ere kultura sozialaren aspektu bat gehiago bezala ikusi behar dugu. Zuzenbidearen historialari sektore nabarmen bat saiatzen da bere teoria ius-historikoak eraikitzen beste aspektu batzuei lotuta: antropologikoak, sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta ideologikoak. Aspaldiko eztabaida zen hura, hau da, ikerketa historiko-juridikoaren xede materiala zedarritzean, Zuzenbidea beste alor metajuridiko batzuek jantzi beharra ote dagoen, ulergarri izateko, edota, aitzitik, sistema juridikoari buruzko ulermena erabatekoa eta koherentea, eta hutsunerik gabea, ote den, aipatu elementu metajuridiko haien eragina ez jasotzeko modukoa. Zuzenbide historikoaren azterketan errealitate sozialaren osagai horiek ez erabiltzeak gizarte bizitzatik urrun zegoen diziplinari ospe txarra ekartzen ziola irizten zioten egile batzuek. Alde horretatik, interesgarria da García Marínek historiografia frantsesaz egindako azterlana errealitate sozialetik gehiegi isolatutako Zuzenbidearen historialariek eginak zituzten planteamendu metodologikoei buruz⁴⁷. Historialariek berek kide ius-historialariei egindako era horretako kritikak

islaturik ageri dira J. Fontana-rengan kontu fiskalei buruz ari zenean. Horrela, hauxe idatzi zuen 1973an:

Arazo horiei ez zieten garrantziarik eman eta, horrela, historialariek bazterrean utzi zituzten erudizio instituzio-zale mota baten esku, zeina mugatzen baita administrazioaren garapena aztertzeraz legezko testuen eta erregelamenduen bitartez, zokoraturik erakundearen eta gizartearen artean dauden kateamendu erabakigarriak⁴⁸.

Orain, nabarmendu nahi dugu iraganeko errealitate sozialaren eta mundu historiko-juridikoaren artean nahitaez eman behar diren loturen garrantzia. J.M. García Marínen hitzetan, kontzepzio berri hori ahalegintzen zen zuzenbidea gizartetik datorrela azpimarratzen, zeinean islaturik agertzen baitira hala gertakari ekonomikoak eta sozialak nola gizabanakoen portaera bateratua. Beraz, faktore batzuen emaitza da, eta ezin ditugu delako faktore horiek bazterrean utzi edozein gizarte historikotan zuzenbidea aztertu nahi badugu. Horrela, faktore ekonomikoek eta sozialek, politikoez eta ideologikoez, portaera erlijiosoak eta mentalitate kolektiboak osotasun harmonikoa osatzen dute eta bere osagaiak banaezinak dira⁴⁹.

Beste alde batetik, Zuzenbidearen Historiarekin batera, beste diziplina batek ere zer ikusi handia dauka foralitatearekin –eta zehazki Hitzarmen Ekonomikoari dagokionarekin–: Historia ekonomikoak⁵⁰. Historia soziala da hain zuzen ere bi diziplinen arteko lokarria. Bartolomé Claverok esan zuen bezala, Historia instituzionalaren eta Historia ekonomikoaren dibergentziaren ondorioz, ez ziren elkarrekiko aintzat hartu zientzia bereko espezialitate sektorialak, eta horrek emaitzen integrazioa galarazten du. Dena dela, Historia sozialak aukera ematen du gertakari historikoen gaineko ikerketen elementuak integratzeko, bai juridikoak bai ekonomikoak, bakoitza bere aldetik aipatu printzipioa murrizten zutenak. Espezialitateen espezialitate integratzailea da, halako moduz, non, gaur egun, Historia sozialaren barnean dauden gaiez Zuzenbidearen eta Ekonomiaren historialariak arduratu baitziren lehenago⁵¹.

Antzekoa gertatzen da Zuzenbidearen Historiarekin Historia orokorrari eta Historia

46. LISÓN, 1990: 211-212.

47. GARCÍA MARÍN, 1977: 51-67.

48. FONTANA, 1973: 7-8.

49. GARCÍA MARÍN, 1977: 55.

50. Cfr. RICO LINAJE, 1988: 509-512.

51. CLAVERO, 1974: 242-248.



sozialari eta antropologikoari berari dagokienez⁵². Zuzenbidearen historialaria gizabanakoen egintzetatik eta gertakari sozialetatik bereizten saiatu da, horiek berek berekin dakarten sistema juridikoa, instituzioak ezagutzeko aukera ematen duena. Dena den, bereizita bezala irauten dute iushistorialariek politikari, erlijioari, pentsamenduari edo gizarteari eskainitako lekuek, bai eta Historia juridikoaren beraren ondo-ondoan jarrita ere. Alde horretatik, J.M. García Marínek salatzen du badela beste arazo bat Zuzenbidearen azterketa historikoan, hots, Zuzenbideak ez du beti ongi definitzen bere oinarrian dagoen errealitate konplexua, baizik eta, zenbaitetan, desegokitasun bat gertatzen da bata eta bestearen artean. Aipatzen ditu desegokitasun horren arrazoiak: arauaren arintasunik eza etengabeko aldaketan dauden egoeretara egokitzeko, nagusi den talde sozialaren borondatea bere interesa nagusitu dadin. Interes hori gauzatzen da zuzenbide ofizialaren arau juridikoetan, gizabanakoen nahiak edo beharrak zeintzuk diren alde batera utzita⁵³. Salustiano de Diosen iritziz argia da erresistentzia horren arrazoa. Horrela, historialariek bazterrean uzten dute Zuzenbidearen Historia, Zuzenbideak gizarte historikoen eraketan, finkapenean eta disoluzioan betetzen duen eginkizuna zein den ez dakitelako. Bien bitartean, Zuzenbidearen historialariak borondatez baztertzen du bere burua, bere ahalegina Zuzenbidearen azterlan soziologikoan disolbatuko ote den beldurrez⁵⁴.

Ikerketa historikoan aitzinapausoa da edozein diziplina ulertzea zuzenbide historiko guztien ikuspegitik. Espainian, J.M. Pérez Prendes izan zen Zuzenbidearen Historia soilik Historia osoaren barrenean uler zitekeela irmotasunez esan zuen lehendabizikoa. *Annales* eskola frantseseko kideek babesten zuten delako Historia oso hori. Horrela, Historia osoa jaio zen Gierke-k aurkeztutako Zuzenbidearen Historiaren, Marx-ek hasitako Historia ekonomikoaren, Max-en eta Alfredo Xever-en moduaren araberako kulturen historiaren eta Max Weber, Gurvitch, Mac Iver eta Mannheim-en azterketa sozialen arteko konbergentzia batetik. Oinarritzen zen atalez ataleko eta abagunezko historiaren ulermenean, bai eta iraupen luzeko egiturazko historiaren ulermenean ere, horretan gertatzen baita egitate historikoaren ulermena, eta osotasun historikoa hartzea suposatzen du⁵⁵. Dena dela, J. Lalinde

Abadiák kritika egin zion Pérez Prendes-en eraikuntza horri eta, alde horretatik, esan zuen *Historia* osoa izena eta antzeko beste batzuk Historia espezializatuen –loturarik gabekoen– nagusitasunaren kontrako erreakzioaren sinbolo hutsak zirela, ez baita ulertzen Historia, Zuzenbidea, Fisika edo Kimika partzialak izatera bideratuak egotea⁵⁶.

Beharbada, Pierre Vilar-ek teorizatu du hobekienik Zuzenbidearen Historia teorizazio sozialaren barnean ulertzearen garrantziaz. Zehazki, esan zuen Zuzenbidea garrantzitsua dela gizarte baten interpretazio historikoan, izendatzen, kalifikatzen eta hierarkizatzen duelako gizabanakoaren ekintzaren eta gizarte horren funtsezko printzipioen arteko dibortzio oro. Berak defendatzen du historialariak Zuzenbidea ulertu behar duela hiru isurialdetik Zuzenbidearen Historia totalizazioaren bilaketara zuzendu behar horretan. Lehenik, gizarte baten zeinu bezala. Izan ere, historialariak gizarte baten funtzionamendua –haren bilakaeraren une nola edo hala egonkorrean– ikusten duen neurrian, Zuzenbidearen bidez egiaztatzen du aipatu funtzionamenduaren elementu adierazgarria. Beraz, era sinkronikoan, Zuzenbidea da une historiko zehatz batean ezarritako gizarte ordenaren adierazgarria⁵⁷.

Beste alde batetik, Vilar-ek proposatzen du Zuzenbidea aztertzea gizartearen ondorio bezala, azterturiko gizarte historikoan gertatzen diren aldaketen emaitza bezala. Beraz, Zuzenbidea Historiaren emaitza bihurtzen da horrela, eta emaitza hori desberdina da gizarte bakoitzean, eta ulertezina gizarte horretatik kanpo, hau da, osotasun bezala ulertutako errealitate sozialetatik kanpo. Orain, kontua da Zuzenbidea era diakronikoan aztertzea, aipatu gizarte errealitateetara moldatu ahala egin izan diren eraldakuntzak nabarmentzeko, historiaren emaitza den aldetik⁵⁸. Azkenik, Zuzenbide historikora kausa gisa hurbildu beharra dagoela dio. Izan ere, Vilar-en esanetan, ez dago inolako gertakari historikorik aldi berean bere kausa ez denik (gertakari historiko oro bere kausa bihurtzen da). Horrela, gizarte antolaketa aranzko joera duen Zuzenbidea ulertu beharra dago, dauden gizarte harremanak gauzatzeko joera duen huraxe. Bada, Zuzenbideak gertakari historiko guztiak hartu behar ditu, eta osotasun kontutan izanik aztertu

52. Ikuspegi orokor baterako ikus CLAVERO SALVADOR, 1981: 21-34; ALVARADO PLANAS, 1989: 11-28.

53. GARCÍA MARÍN, 1977: 57.

54. DE DIOS, 1976: 217.

55. Bere bibliografia oparoaren artean ikus azken hausnarketa orokorretako bat: *Historia del Derecho Español*, Madrid: Universidad Complutense, 1999. 2 ale.

56. LALINDE ABADÍA, 1977: 321.

57. VILAR, 1983: 106-137.

58. VILAR, 1983: 129-134.



beharra dago ikuspuntu metodologikotik. Horri buruzko adibide bat eman zuen Vilar-ek esaldi argigarri batekin:

Historia ikasi beharra dago, Zuzenbidea ulertuko badugu, Zuzenbidea Historiaren osagaia delako. Bere harremanek aukera ematen dute interesen garrantzi historikoa bereizteko⁵⁹.

Bukatzeko, gogoeta batzuk eginen ditugu **Zuzenbidearen Soziologiaz eta Zuzenbidearen Antropologiaz**. Horrela, Vincenzo Ferrari-rekin bat, Soziologia oro har eta Zuzenbidearen Soziologia bereziki gizarte industrialaren –eta, geroago, post-industrialaren– arazoei estuki lotutako diskurtso zientifiko bezala garatu da. Era askotako rol, estatus eta espektatiba sozialak izan dituzten testuinguruetan ahalegindu da eta, beraz, oso desberdina baina malgua eta aldagarria den gizarte estratifikazioa izan du xede, eta lotuta egon da ez soilik pertsona bakoitzaren jatorrizko baldintzei, baizik eta baita bere aukerei ere. Soziologia izan da garai batean *garatuak* izendatzen ziren gizarte zientzia eta, egun, era neutroagoan, *konplexuak* deitzen ditugunak. Aldiz, Antropologia garatu da gizarte aurre-industrialak aztertzerako bideratutako diskurtso zientifikoaren gisara. Zehazki, batetik, Europako potentzia handiek kolonizatutako herriak aztertzerako eta, bestetik, herrialde industrialen barnean, beren identitate etnikoagatik eta/edo atzerapen teknologikoagatik desberdintzen ziren talde sozialak aztertzerako, hau da, gizarte *primitiboak* izendatutakoak aztertzerako eta orain, era aseptikoagoan, *sinpleak* deitzen direnak. Bi diziplinak bereizita hazi ziren, akademia giro desberdinetan. Soziologiak ikerketa tekniko estandarizatuak prestatzen zituen, aukeran kuantitatiboak, prozesu orokorrak deskribatzerako eta aurreikustera bideratuak; ikerketa kualitatibora bideratzen zenean ere, gizarte errealitatean osagai ziren eta hartan murgildurik zeuden ikertzaileek formulatutako eskemen arabera egindako behaketetara jotzen zuen. Antropologiak, bere aldetik, teknika libreak eta soilik kualitatiboak garatzen zituen, ikertzaileek zuzenean behatutako gertakarien bilketa zehatzean –eta maiz kasualean– oinarriturik. Ikertzaile horiek *desberdinak ziren* gizarteetan aritzen ziren, eta haiekiko arrotz irauten zuten nabarmen. Gainera, Soziologia lehentasunez ekonomiari, politikari eta antolaketari lotutako

alderdiez arduratzen zen bitartean, Antropologia arduratzen zen kulturari, hizkuntzari eta etnari lotutako haieran⁶⁰. Bere aldetik, Antropologia juridikoa gizakiaren zientzia gisa jaio zen, gizakia naturalki juridikoa den heinean (*homo juridicus*)⁶¹.

Denbora aurrera joan ahala, Zuzenbidearen Soziologiaren eta Zuzenbidearen Antropologiaren arteko desberdintasuna *barne* desberdintasun bat izatera pasatu zen gero eta gehiago, hau da, bi espezialitate desberdin dira diziplina beraren esparruan. Egun, Antropologia sozial eta kulturalak kulturen arteko ikuspegia eta ikuspegi konparatiboa ematen dizkio Zuzenbidearen azterketari eta, horrez gain, hauxe ere bai: dogmatika juridikoaz kanpo dagoen marko teoriko bat instituzioa bera aztertzerako, arazo zehatzetara (adibidez inmigrazioa, arrazakeria...) hurbiltzeko bide bat, eta lan metodologia bat⁶². Azterketa antropologikoak gai politikoen eta gai sozialen beste dimentsio batzuen inbrikatzea nabarmentzen ditu. Gai juridikoak, ia politikoak bezain beste, gizartean presente ditugu hainbat modu ezberdinetan, eta horregatik, ikertzaileak ahal duen guztiaz baliatu behar du zuzenbidearen bidez lan egiten duten *botere-dispositiboak* azaleratzeko⁶³. Antropologia politikoan bada modernitatearen antropologiaren alde borrokatzen duen korrante bat, Marc Augéren lanek erakusten duten moduan⁶⁴. Jarrera metodologiko horrek, beste disziplina batzuekin batera, fenomeno politikoei buruz dugun ezagutza sakontzea du helburu, eta fenomeno juridiko garaikideen azterketarako ere egokia dela iruditzen zaigu, eta bereziki, Nafarroako foralitatearen historiaren irakaskuntzaren analisirako, horrela, foralitateari *ahantzuratik* irteten lagunduz.

Espezialitate bakoitzak bere metodologia behar du baina elkarren artean lot daitezke⁶⁵, hainbat ius-soziologoek eta ius-antropologoek lanetan agerian agertzen den bezala, besteak beste honakoetan, esanguratsua diren batzuk aipatzearren: soziologiako esparruan Robert L. Kidder (1983), Jean Gaudemet (2000); eta antropologian Robert Rouland (1988), Ignasi Terradas (argit., 1999) eta Esteban Krotz (argit. 2002). Lan horiek zuzenbidearen ikerketa sozio-antropologikoaren garrantzia handituz doala nabarmentzen dute, eta horietariko gehienek, zuzenbidearen fenomenoak hausnartzen dute, ezaugarritzat aniztasun kulturala duen gizartean.

59. VILAR, 1983: 134.

60. FERRARI, 2000: 81-83.

61. CARBONNIER, 1982: 32-33.

62. ARDEVOL, 1998: 297-298.

63. ÁVALOS MAGAÑA eta MADRIGAL MARTÍNEZ, 2005.

64. AUGÉ, 1998a.

65. FERRARI, 2000: 85.



Bibliografiaren eta dokumentuen laguntzaz gain, gure doktoretza tesian Nafar soziologian ere barneratuko gara Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleak aztertzearen bidez eta, zehazki, haiek historiako eta egungo foralitateaz dakitenaren bidez. Gure planteamendua ez da berria. Azken hamarkadan Zuzenbidearen Soziologiak **zuzenbidearen inguruko perzeptzioak** jorratzen darama. Gure lanerako interesgarriak izan zaizkigu, besteak beste, *Instituto de investigaciones Jurídicas de la Universidad Autónoma de Méxicokoek* bultzaturiko Mexikoko konstituzioaren inguruko herri-perzeptzioak (2004)⁶⁶, eta Bogumila Puchalska-k komunismoaren ondoren zuzenbidearen perzeptzioen azterketa (2006)⁶⁷. Hezkuntzaren arloan, bestalde, bide horri ere ekin diote. Euskal Herrirako Begoña Molerok eta José María Madariagak azterlan hau egin zuten: *Aproximación al estudio de la representación de la identidad cultural, étnica y nacional en el alumnado de la UPV/EHU que comienza los estudios de Magisterio*⁶⁸. Ordura arte, ikerlanak bideratu ziren haurrek eta gazteek nazio identitateaz zuten ezagutzara, baina ez zen halakorik egin unibertsitateko ikasleen artean, bereziki etorkizuneko hezitzaileen artean, Domínguezek eta Cuencak Andaluziari buruz egindako lana izan ezik, lagin murriztean oinarritua⁶⁹.

Gure kasuari dagokionez, interesa heldu zaio gure begirada bereziki Nafarroako Unibertsitate Publikoko hiru ikasle talde desberdinetan pausatu dugulako (Zuzenbidea, Ingeniari teknikari industrialak eta Esperientziako Gelak). Lehenbizikoari dagokionez, inkesta hainbat taldetan egin genuen, eta horren ondoren gogoeta eginaraz genituen foralitatearen *ahantzuraz*. Talde hori bereziki interesgarria da, etorkizunean haiek izanen direlako nafar zuzenbidea zaintzeaz edo ez arduratuko diren legelariak. Bigarren taldeari dagokionez, inkesta egin genuen *a priori* lehenbizikoaren antipodetan dagoen taldea delako, gaiari buruzko interesari eta ezagutzari dagokienez. Azkenik, inkesta egin nien Esperientziako Gelako bi talderi, 55 urtetik gorako emakumez eta gizonez osatua, bata Iruñekoa eta bestea, berriz, Tuterakoa. Inkestak horiek egin nituen 2004-2005 eta 2005-2006 ikasturteetako hainbat alditan, eta anonimoak izan ziren.

Metodologia bikoitza erabili dugu. Batetik, metodologia kuantitatibo positibistaren test-inkesta, ezagutza sistematikoa, egiaztagarria eta konparagarria, neurgarria eta erantzuteko modukoa bilatzen saiatuz⁷⁰. J. Carbonnier-ek adierazi zuen moduan, aurrez definitutako esperientzia da eta teknika zehatza du, emaitzak Soziologia juridikoaren barnean antzemateko⁷¹.

Ikerketa teknika kuantitatiboaz gain, azterlan honetan interesatzen zitzaigun ikerketa teknika soziologiko kualitatiboa sartzea, egungo gazteriari memoriaren eta foralitatearen ahanzturaren inguruan duen perzeptzioa eskatzeko. Bat egiten dugu iritzi orokorrekarekin eta guretzat ere metodologia kuantitatiboa kualitatiboa bezain baliotsua da, eta bere desberdintasuna datza erabilgarritasun eta gaitasun heuristiko desberdinean. Horregatik dira gomendagarriak kasu eta egoera desberdinetan. Ikertzailearen zentzu ona ez dago erabiltzen duen metodologiaren mendean, baizik eta huraxe erabiltzearen mendean egokituen dagoen kasu zehatzetarako. Bi metodologiaren arteko konbinazioari *triangulazioa* esaten zaio eta gero eta gehiago erabiltzen da⁷².

Komeni da gogoratzea metodologia kualitatiboak diskurtso sozialaren (erre)produktzioari erreparatzen diola diskurtso hori bera sorrarazi eta baldintzatzen duen testuingurutik bertatik. Ikertzaileak –kasu honetan bere ikasleen irakasle paperean babestua– diskurtsoaren probokatzailer baten estatusa hartzearekin batera, ondoren antzezten du gizarte talde bakoitzaren jarrera ideologikoaren argitan. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbidearen Historiako 2005-2006. ikasturteko ikasleekin eztabaidarako talde handi bat sortu nuen foralitatearen gaurkotetasunaren inguruan bere iritzia eman zezan. Lehenbiziko saio batean galdetegi bat banatu zen eta galdera hauei erantzun zieten: Zentzurik ba al du Eskubide historikoak Nafarroan mantentzeak? Zure iritziz, herritarrek gaur egun badakite zer diren Nafarroako Eskubide historikoak? Zure ustez, nolakoa da gazteriaren duen ezagutza Nafarroako Eskubide historikoei buruz? Zer dela eta, herritarren ezjakintasuna nafar foralitatearen funts historikoen gainean? Bigarren saioan, erantzunak eztabaidatu ziren. Alde horretatik, komeni da gogoratzea ez dela ohikoa eztabaida taldeetako kideek berek beren iritzietara sarrera izatea, eta

66. FLORES et al., 2004.

67. PUCHALSKA, 2006.

68. MADARIAGA eta MOLEROK, 2004.

69. DOMÍNGUEZ DOMÍNGUEZ eta CUENCA LÓPEZ, 2001.

70. RUIZ DE OLABUÉNAGA, 1996: 29-30.

71. CARBONNIER, 1982: 199-200.

72. RUIZ DE OLABUÉNAGA, 1996: 17.

are gutxiago, bere dikurtsoaren analista paperaren aurrean paratzea, ezta diskurtso horrek agertu ditzakeen kontraesan eta adostasunen aurrean paratzea ere. Horrela, behin nik sistematizatuta erantzunak taldeari itzultzean, bigarren azterketa bat lortu nuen, baina erreferentziatik galdu gabe lehenbizikoa zein testuingurutan sortu zen.

Horrenbestez, informazioa lortu nuen *Eztabaida taldearen* azterketa praktikaren bidez, praktikarik egokiena baita diskurtso libre eta berezkoa libratzeko. Kontua litzateke taldeari ahots integratzailea ematea, inolako aurreiritzirik gabe. Talde horretako Zuzenbidearen Historiako irakaslea nintzen aldetik, taldeko moderatzailea izan nintzen. Testuen eta diskurtsoen hitzez hitzeko transkripzioa baliagarri zaigu material gordin gisa eta, haren gainean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbideko lehen mailako ikasleen (2005-2006) diskurtsoa marraztu ahal izan nuen. Komeni da adieraztea gaztelaniazko taldea zela (bigarren lauhilekoa). Zoritxarrez, ez nuen euskarazko taldearekin egiterik izan, irakaskuntza ere ematen dugun harekin (lehen lauhilekoa). Iritziak aberastu bidenabar anitzagoak ere eginen zituen.

Ikasleen pertzepzio horietan eragin handia daukate Batxilergoan jasotako ikasketek, eta honi heltzeko Nafarroako ikastetxe esanguratsuenetan erabiltzen dituzten testu liburuen azterketa burutu nuen.

Bestalde, zuzenbidearen soziologiaren ikuspegitik ere Nafarroako Foru zuzenbidearen protagonisten **biografietan** eta euren **prosoprografian** sakondu dut, besteak beste Víctor Pradera, Eladio Esparza, edota Jaime Ignacio del Burgo bezalako pertsonaiak.

Oinarri metodologiko hoiekin gure doktoretza tesian Nafarroako foru zuzenbidearen irudiak aztertzen dira, XIX. mendeko herri aldarrikapenetik, egungo ahanzturara. Herri memoria gero eta gehiago urruntzen joan zen foruetatik, harik eta egungo ahanzturara iritsi arte. Horren aurrean, indarrez azaleratu da foruen *kausa* bakardadean aldarrikatzen duen memoria instituzionalizatua. Herritarrek foraltasun historikoari buruz eta egungo eskubide historikoei buruz duten pertzepzioa oso gaineakoa da, oso ezaguera-maila eskasarekin, antolatu ditudan hainbat eztabaida-taldeei egindako azterketaren emaitzen arabera. Egungo Nafarroako foralitatearen erronkak hainbat alorretan aztertzen dira: zuzenbidearen teknifikazioa, globalizazioa, sistema politikoaren krisia, Europako Batasuna, inmigrazioa eta hezkuntza.

7. Bibliografia

- AGUIRRE BAZTÁN, Ángel (1998): "La identidad cultural de Navarra", *La identidad de Navarra*, Barcelona: Ediciones Bardenas, 3-58. orr.
- ALIENDE URTASUN, Ana (2004): "La construcción de las diferencias regionales en el contexto de la globalización. Una aproximación a la Comunidad de Navarra. A. Gurrutxaga Abad (argit.), *El presente del Estado-Nación*, Bilbao: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 245-256. orr.
- ALVARADO PLANAS, Javier (1989): "Historia del Derecho y antropología jurídica", en *Revista de la Facultad de Derecho de la Universidad Complutense*, 75. zb., 11-28. orr.
- ARBELOA MURU, Víctor Manuel (1998): "La identidad cultural de Navarra", *La identidad de Navarra*, Barcelona: Ediciones Bardenas, 117-144. orr.
- ARDEVOL ARMENGOL, Elisenda (1998): Antropología jurídica y etnografía. M.J. Añón, R. Bergalli, M. Calvo eta P. Casanovas (koord.), *Derecho y Sociedad*, Valencia: Tirant lo Blanch, 291-318. orr.
- AUGÉ, Marc (1998a): *Los "no lugares". Una antropología de la sobremodernidad*, Barcelona: Gedisa (3. berrargitalpena).
- (1998b): *Las formas del olvido*, Barcelona: Gedisa.
- ÁVALOS MAGAÑA, Sergio Arturo eta MADRIGAL MARTÍNEZ, César Humberto (2005): "Hacia una antropología jurídica de la modernidad", *Episteme*, 6. zb. <http://www.uvmnet.edu/investigacion/episteme/numero5-05/>
- AZCONA PASTOR, José Manuel eta GORTARI UNANUA, Joaquín (2001): *Navarra y el nacionalismo vasco. Ensayo histórico-político sobre las señas de identidad originaria del Viejo Reino*, Madrid: Biblioteca Nueva.
- BAUER, W. (1967): *Introducción al estudio de la Historia*, Barcelona, 1967.
- BAYART, J.F. (1996): "La fabrication de l'authenticité", *L'illusion identitaire*, Paris: Fayard: 85-92. orr.
- BERIÁIN, Josetxo (1998): *La identidad colectiva: vascos y navarros*, Pamplona: Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- BERTAUX, Daniel eta THOMPSON, Paul (1993): "Introduction", Daniel Bertaux eta Paul Thompson (argit.), *Between Generations. Family Models, Myths and Memories*, International Yearbook of Oral History and Life Stories, II, Oxford: Oxford University Press, 1-12. orr.
- BURKE, Peter (1991): *La cultura popular en la Europa moderna*, Madrid: Alianza.



- CARBONNIER, Jean ([1977] 1982): *Sociología jurídica*, Madrid: Tecnos. 2. argit.
- CARR, Edward H. (1985): *¿Qué es la Historia?*, Barcelona: Planeta-Agostini.
- CLAVERO SALVADOR, Bartolomé (1974): "La Historia del Derecho ante la Historia social", *Historia, Instituciones, Documentos*, 1 zb., 239-261. orr.
(1981): "Historia y antropología: de la división convencional de las ciencias sociales", *Llull. Revista de la Sociedad Española de Historia de las Ciencias y de las Técnicas*, IV, 6-7. zb., 21-34. orr.
- COING, Helmut (1977): *Las tareas del historiador del derecho. Reflexiones metodológicas*, Sevilla: Universidad de Sevilla.
- CONNERTON, Paul (1989): *How societies remember*, Cambridge: Cambridge University Press.
- COURTAS, Raymonde eta ISAMBERT, François A. (1983): "Etnologi e sociologi alle prese con la nozione di *popolare*", R. Manselli (a cura di), *La religiosità popolare nel Medio Evo*, Bologna: Il Mulino, 89-109. orr.
- CUCHE, D. (1996): "Culture et identité", *La notion de culture dans les sciences sociales*, Paris: La Découverte, 83-96.
- CUESTA BUSTILLO, Josefina (1996): "De la memoria a la historia", Alicia Alted (koord.), *Entre el pasado y el presente. Historia y memoria*, Madrid: Universidad Nacional de Educación a Distancia, 55-89. orr.
(1998): "Memoria e historia. Un estado de la cuestión", J. Cuesta (argit.), *Memoria e historia*, Madrid: Asociación de Historia Contemporánea y Marcial Pons, 203-246. orr.
- DE DIOS, Salustiano (1973): "El Derecho y la realidad social. Reflexiones en torno a la Historia de las Instituciones", *Historia, Instituciones, Documentos*, 3 zb., 187-222. orr.
- DE MIGUEL, Amando eta DE MIGUEL, Iñaki (Tábula-V-aren kolaborazioarekin) (2002): *La sociedad navarra. Entre la escisión y la esperanza*, Madrid: Laocoonte.
- DEL VALLE, Teresa (1997): *Andamios para una nueva ciudad. Lecturas desde la Antropología*, Madrid: Cátedra.
- DOMÍNGUEZ DOMÍNGUEZ, Consuelo eta CUENCA LÓPEZ, José María (2001): *Nacionalismo e identidades: estudio analítico de concepciones de maestros en formación inicial*. J. Estepa, F. Frieria, eta R. Piñero, *Identidades y territorios: un reto para la Didáctica de las Ciencias Sociales*, Oviedo: Ediciones KRK.
- FEBVRE, Lucien (1970): *Combates para la historia*, Barcelona: Ariel.
- FERNÁNDEZ DE LARRINOVA, Kepa (1997): "Estructuras emergentes", *Zinak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 14. Comunidades de Montaña, Donostia/San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 375-389. orr.
(2005): *Apuntes personales I. Mutación y permanencia en diversos escritos de antropología sociocultural*, San Sebastián: Egilearen argitalpena.
- FERRARI, Vincenzo (2000): *Acción Jurídica y Sistema Normativo. Introducción a la Sociología del Derecho*, Madrid: Dykinson-Instituto de Derechos Humanos Bartolomé de las Casas, Universidad Carlos III de Madrid.
- FLORES, Julia et al. (2004): *Cultura de la Constitución en México. Una encuesta nacional de actitudes, percepciones y valores*, México: UNAM-IIJ.
- FONTANA, Josep, *Cambio económico y actitudes políticas en la España del siglo XIX*, Barcelona, 1973.
- GALLINI, Clara (1977): "Forme di trasmissione orale e scritta nella religione popolare", *Ricerche di Storia Sociale e Religiosa*, 11, Roma: Edizioni di Storia e Letteratura, 96-108. orr.
- GARCÍA GARCÍA, José Luis (1994): "Celebraciones y conmemoraciones", *Antropología. Revista de pensamiento antropológico y estudios etnográficos*, 8 zb., 113-121. orr.
- GARCÍA MARÍN, J.M. (1977): "Actitud metodológica e Historia de las Instituciones en Francia: Una valoración de conjunto", *Historia, Instituciones, Documentos*, 4 zb., 49-108. orr.
- GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel, IRIARTE LÓPEZ, Iñaki eta MIKELARENA PEÑA, Fernando (2002): *Historia del navarrismo (1841-1936). Sus relaciones con el vasquismo*, Pamplona: Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- GEERTZ, Clifford (1997): *La interpretación de las culturas*, Barcelona: Gedisa (8. argit.).
- GILLIS, John R. (argit.) (1994), *Commemorations. The politics of national identity*, Princeton: Princeton University Press.
- HOBBSAWM, Eric J. (2003), *Años interesantes. Una vida en el siglo XX*, Barcelona: Crítica.
- IRIARTE LÓPEZ, Iñaki (2000): *Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960)*, Madrid: Biblioteca Nueva.
- IZU BELLOSO, Miguel (2001): *Navarra como problema. Nación y nacionalismo en Navarra*, Madrid: Biblioteca Nueva.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán (1999): "La memoria de los derrotados", *Gerónimo de Uztariz*, 14-15 zb., Pamplona: Instituto Gerónimo de Uztariz, 19-38. orr.

- (2002): "Religiosidad y grupos sociales en Navarra: perspectivas de estudio", en Carmen Erro Gasca e Iñigo Mugueta Moreno (edits.), *Grupos Sociales en la Historia de Navarra: Relaciones y Derechos. Actas del V Congreso de Historia de Navarra, Pamplona, septiembre 2002. Volumen III, Ponencias*, Pamplona: Sociedad de Estudios Históricos de Navarra, 421-442. orr.
- LALINDE ABADÍA, Jesús (1977): "Hacia una Historia paralógica del Derecho", *Historia, Instituciones, Documentos*, 4 zb, 317-353. orr.
 - LE GOFF, Jacques (1991): *El orden de la memoria. El tiempo como imaginario*, Barcelona: Paidós.
 - LEONÉ PUNCEL, Santiago (2005): *Los Fueros de Navarra como lugar de la memoria*, Donostia/San Sebastián: Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autónomo de Vasconia.
 - LISÓN TOLOSANA, Carmelo (1992): *La imagen del rey. Monarquía, realeza y poder ritual en la casa de los Austrias. Discurso de recepción del académico de número... y contestación del Excmo. Sr. D. Salustiano del Campo Urbano. Sesión del 4 de febrero de 1992*, Madrid: Espasa Calpe.
 - MADARIAGA ORBEA, José María eta MOLERO OTERO, Begoña (2004): Visión del alumnado de magisterio sobre la diversidad cultural y la identidad nacional. David Pérez i Pérez eta María Isabel Vera Muñoz (koord.), *Formación de la ciudadanía: las TICs y los nuevos problemas*, Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes. <http://www.cervantes-virtual.com/servlet/SirveObras/12937622008074859643624/index.htm>
 - MARROU, Henri-Irénée (1954): *De la connaissance historique*, Paris, 1254-1256. orr.
 - MIKELARENA PEÑA, Fernando (2003): "Identidad e ideología en Navarra. Los navarrismos en el siglo XX", *Hermes*, 9. zb. <http://www.sabinoarana.org/es/hermes-pdf/hermes9.pdf>
 - NORA, Pierre (1984a): Présentation. NORA, Pierre (dir.) *Les lieux de mémoire. I. La République*, Paris: Gallimard, VII-XIII. orr.
(1984b): Entre Mémoire et Histoire. La problématique des lieux. NORA, Pierre (dir.) *Les lieux de mémoire. I. La République*, Paris: Gallimard, XV-XLII. orr.
 - PAGÈS BLANCH, Pelai (1983): *Introducción a la Historia*, Barcelona: Barcanova.
 - PÉREZ-PRENDES MUÑOZ-ARRACO, José Manuel (1999): *Historia del Derecho Español*, Madrid: Universidad Complutense. 2 ale.
 - POULAT, Émile (1977): "Pour une notion extensive de religion populaire", *Ricerche di Storia Sociale e Religiosa*, 11, Roma: Edizioni di Storia e Letteratura, 45-52. orr.
 - PUCHALSKA, Bogumila (2006): *Social perceptions of Law After Communism*. Michael Freeman (argit.), *Law and Sociology*, Oxford: Oxford University Press.
 - RAMOS, Ramón (1989): "Maurice Halbwachs y la memoria colectiva", *Revista de Occidente*, 100 zb., 63-81. orr.
 - RICO LINAJE, R. (1988): "Historia económica e historia jurídica: algo más que una ignorancia", en *Anuario de Historia del Derecho Español*, 56 zb., 509-512. orr.
 - RUIZ DE OLABUÉNAGA, José Ignacio (1996): *Metodología de la investigación cualitativa*, Bilbao: Universidad de Deusto.
 - SAINSAULIEU, Renaud (1985): *L'identité au travail. Les effets culturels de l'organisation*, Paris: Presses de la Fondation des Sciences Politiques.
 - SÁNCHEZ PRIETO, Juan María eta NIEVA ZARDOYA, José Luis (2004): *Navarra: memoria, política e identidad*, Pamplona/Iruña: Pamiela.
 - SCHAFF, Adam ([1977] 1988): *Historia y verdad*, Barcelona: Crítica. 3. argit.
 - SIMON, A. (1963), "L'objectivité en histoire", *Revue de l'Institute de sociologie*, Bruxelles.
 - THOMPSON, Paul (1988): *La voz del pasado. La historia oral*, Valencia: Edicions Alfons el Magnànim. Institució Valenciana d'Estudis i Investigació.
(1994): "Believe it or not: rethinking the historical interpretation of memory", Jaclyn Jeffrey eta Glenace Edwall, *Memory and History. Essays on Reclling and Interpreting Experience*, New York y London: University Press of America.
 - VANSINA, Jan (1985): *Oral tradition as History*, Madison: The University of Wisconsin Press.
 - VELASCO MAILLO, Honorio (1994): "Sugerencias para una comprensión de la cultura como memoria", *Antropología. Revista de pensamiento antropológico y estudios etnográficos*, 8 zb, 123-138. orr.
 - VES LOSADA, Alfredo E. (2002): *Sociedad, conocimiento y Derecho*, La Plata: egilearen argitalpena.
 - VEYNE, Paul (1984): *Cómo se escribe la historia. Foucault revoluciona la historia*, Madrid: Alianza.
 - VILAR, Pierre (1983): *Historia del Derecho, Historia total. Economía, Derecho, Historia*, Barcelona, 106-137. orr.
 - ZABALTA PÉREZ NIEVAS, Xabier (2005): *Mater Vasconia. Lenguas, fueros y discursos nacionales en los países vascos*, Donostia: Hiria-IPES.